

Elkarlanaren Azoka

Krisiari iskin¹ egin ezinik, baina krisiari aurre eginda dator Durangoko 47. Euskal Liburu eta Disko-Azoka, abenduaren 6tik 9ra. Elkarlanaren bidean sakondu du Gerediaga elkarteak aurtengo edizioa antolatzerakoan, Azokaren izaera ireki eta parte hartzailea indartuta.



ARGAZKIPRESS

Krisiak eraginda Azokaren aurrekontua murriztu egin da, eta murrizketaren eraginez iraupena 5 egunetik 4ra laburtu badute ere, inoiz baino ekitaldi gehiago antolatu dituzte Gerediagakoei. Orain artean Azokak izandako hedapenari eutsi eta egindako urratsak finkatu dituzte urteon, hala nola iaz diziplina berriei eskainitako guneak sendotu. Elkarlanaren bidea finkatuta ez ezik indartuta ere, letren eta musikaren esparrutik haragoko eskaintza oparo eta anitza ekarriko du aurten ere Durangoko Azokak. Elkarlanaren Azoka izango da.

Zenbakiak

Krisiaren eraginez zenbakiak garrantzia izanen dute aurtengo Azokan. Egun bat gutxiago izanagatik, inoizko egitaraurik zabalena eskainiko du. Orotara, 300 ekitalditik gora burutuko dira lau egunez Azo-

kako gune ezberdinetan, aurkezpen, emanaldi, solasaldi, tailer eta bestelako ekitaldien artean. Landako gunean 253 stand izango dira aurtan eta bertan eskainiko dituzte euren lanak 127 argitaletxe, diskoetxe, elkarte, erakunde eta taldek. Erakustoki horietan guztietan, guztira 411 nobedade eskainiko dira: 289 liburu, 65 bideo, 32 aldizkari, 7 liburu elektronikoa eta 18 bestelako produktu.

Ijitoen kultura

Ijitoen kulturak presentzia nabarmena izango du Durangoko 47. Azokan, aurtengo kultura gonbidatua izango baita. Mende luzez Euskal Herrian egon izan arren, ijitoen kultura ez da oso ezaguna, **aurreiritzien²** eraginez baztertuta eta ikusezin bilakatuta izan baita. Kultura gonbidatu eginez, **ikusgai³** egin nahi du

Azokak. Horretarako, hainbat jarduera antolatu ditu Kale Dor Kayiko elkartearekin elkarlanean: haurrentzako tailer, ipuin-kontaketa eta jokoak; flamenkoa, bertsoa eta txalaparta uzartuko dituen ikuskizuna; Euskal Herriko ijitoen hizkuntzari, erromintxelari, buruzko hitzaldia; mahai-inguruak...

Lertxundiri saria

Euskal kulturgintzan erreferente garrantzitsu den Benito Lertxundik jasoko du aurtan Argizaiola saria. Ia hasieratik lotura estua izan du Lertxundik Azokarekin. Izan ere, Azokaren bigarren urtean kontzertua eman zuen Durangon, Ez Dok Amairu taldeko partaide zela. Argizaiola saria abenduaren 6an emango diote, Jon Maiak zuzendutako *Gauean argi* izenburuko ekitaldian.

ARGAZKIPRESS

